

IN MEMORIAM: LINO AKESOLO

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 1 (1992), p. 19-23
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

AITA LINO AKESOLO OLIBARES (1911-1991)

Ustegabeen harrapatu gaitu Aita Lino arratiar karmelitaren hilberriak. Eta bera hurbiletik ezagutzeko zoria izan genuenok agertu dugu, jendaurrean ere bai, geure saminduraren handia, eta goraki aitortu ere dugu gizon eta ikerle mailan berari genion miresmena.

Denek hain estimu handitan genuen gizonak bazuen arrisku bere idazlanak han eta hemen barreiatuak geratzeko, eta jendaurrean merezia zukeen ezagutzarik ez edukitzeko. Baina zorionez ongi bideratu zen eta garaiz bere idazlanen auzia. Karmeldarrei esker, erakunde politikoan laguntzaz eta zenbait kultur etxeen eragitez, gaur jendaurrean eskuera dugu Aita Linoren kultur emaitza, eta Bizkaiko seme ospetsuak izan dezake bere neurriko aitorten betea.

Diman (Bizkaian) jaio zen karmeldar honen kultur altxorra eta bere idazle irudia neurri egokian balioztatzeko, behar-beharrezkoa da azpimarratzea nolako eskolan egin zituen bere ikasketak eta bere irakasle lanak. Aita Lino sasoiko zenean, seminarioak eta konbentuak izan ohi ziren herriotako ikastetxe gorenak eta eraginkorrenak. Eta ez dugu ahaztu behar ere, Dimako karmeldarra apaiz egin zenetik irakasle genuela, karmelitagai zirenen irakasle. Maisutza-lan hauetan nabararaziko genuke telogiako irakasle izan zela, “elizaren kondaira, patologia, antzinako eliz literatura eta misionologia” izan zirelarik bere gai bereziak.

Teologia irakasten eman zituen urte asko, konbentu barruko biblioteka nahiko ongi hornitua alboan zuela, orduko gazteriaren mugimenduak biziz, eta idazkien bidez apostolutzat eginenez, etxetik bertatik ateratzen zuten erlijio-aldizkarian esku-hartuz. Eliz ordena bateko erlijioso izanak argitzen du ongien Aita Linoren formazio-eittea, osabete zuen buru-langintza, bere esku zituen medioen nolerebaiteko ugaritasuna, eta guzti honek eman zion kultur gizon jakin baten izaera eta irudia.

Hizkuntza bat baino gehiago ongi jakiteak eman zion kanporantzako zabaltasuna ere aitortu behar genuke. Gudarien kaperau izan ondoren, eta espetxean zegoelarik, alemana, ingelesa eta italiera ikasi zituen, lehendik zekien frantzesara ere landuz. Hizkuntz alorrean zeukan prestakuntzaz baliatuz, itzuli zituen une hartan interesgarri ziren idazlanak, garaiko pentsamolde katolikoaren argibideak eta kezkek ispilatzen zituztenak. Esate baterako, baditu bi mila orrialdetik gora alemanetik gaztelerara itzuliak, gero zabalkunde etxeetan argitaratu izan zirenak. Garaiko gaietan nabarmentzen da Aita Linok zuen sena eta apeta gai bibliko-teologikoak sakontzeko.

Argitaratu zituen liburuak aipatzekotan, bere idazlan nagusia eta sonarik handiena eman diona, *Diccionario de Autoridades del Euskera* (1977-1989). Dakigunez, Aita Akesolo dugu “bere eskuz eta erantzukizunez lan osoa zuzendu zuena” eta “hiztegiaren egilea”. Bederatzi liburuki dituen hiztegi honetaz gainera, paratu zituen euskal idazle zaharren argitarapenak, eta nongorik-nongoko liburu klasikoaren euskal itzulpenak. Bereziak aipatzekoak liturgi mailan argitaratutako idazlanak.

Zenbait aldizkaritan argitara eman zituen idazlan txikiagoei gagozkielarik, aipatzekoak dira bere 287 artikulua Idazlan Guztietan agertzen direnak. Idazlan guzti hauek aditzera ematen digute ez bakarrik emaitzaren ugaritasuna, baizik eta bere jakintza-sena, egizaletasuna, eta ikertzaile maila.

Elkarlanean aritua dugu kultur eta erlijio mailako erakundeek antolaturiko egitasmoetan. Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen 1963an, uko egin ziolarik aulkari. Gerora; 1978an Euskerazaintzako buru egin zuten, kargu honetan iraun duelarik hil arte. Gainera, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko lankidea zen. Baina agian elkarlanik garrantzitsuena Elizbarrutiarteko Liturgi Batzordean egin zuen: buru-belarri aritu zen Vaticano II. Kontzilioak agindutako liturgi testuak euskaratzen, bere ekarria oso estimagarritzat jotzen zelarik taldean. Bere gain eramanean zuen denen artean Euskal Herri osorako prestatutako testuak bizkaieraz argitaratzeko zeregina.

Bizkaiak galdu du bere "Bizkaiko Seme Bikain" izendaturikoa. Eta euskarak negartzen du mende honen azkenetako ikertzailerik handienetako bat, eta humanistarik nabarientakoa.

Linoren beraren hitzekin, gure herrietako hiletetan hainbat aldiz errepikatzen den erantzun-leloarekin, agurtzen dugu oroitzapen ederrenaz:

"Hartu zuk, Jauna, hil hau zeruan
betiko bizilekuan".

PADRE LINO AKESOLO OLIBARES (1911-1991)

Ha sido una sorpresa la muerte de Aita Lino, carmelita arratiano. Cuantos pudimos conocerle de cerca, hemos expresado hasta en público la enorme pena que nos embarga, así como hemos declarado abiertamente la profunda admiración que le profesábamos como hombre y como investigador de temas vascos.

Este hombre a quien teníamos en tan profunda estima, corrió el riesgo de que sus escritos quedaran esparcidos aquí y allá, sin que el autor tuviera la resonancia pública a que se había hecho acreedor. Pero afortunadamente, se enderezó bien y a tiempo el destino de sus escritos. Gracias a sus hermanos de orden, a la ayuda de las instituciones públicas y al empeño de algunas entidades culturales, hoy está a disposición del público la producción literaria de Aita Lino, y este ilustre hijo de Vizcaya puede gozar del reconocimiento que le es debido.

Para valorar en su justa medida el bagaje cultural y la imagen de escritor de este carmelita natural de Dima (Vizcaya), es de todo punto necesario subrayar cómo eran los centros en que realizó sus estudios y sus tareas docentes. Durante los años de juventud de Aita Lino, los seminarios y los conventos eran los centros de estudio de más prestigio y efectividad en el País Vasco. Y no olvidemos tampoco que el carmelita arratiano, desde que se ordenó de sacerdote figuraba como profesor de los aspirantes a la orden carmelitana. De su labor de enseñante, destacaríamos que fué profesor de teología, siendo "la historia eclesiástica, la patrología, la literatura eclesiástica antigua y la misionología" las asignaturas de su especialidad.

Se dedicó largos años a la enseñanza de la teología, contando en el convento con biblioteca relativamente bien surtida, viviendo los movimientos de la juventud de aquel entonces, y dedicándose al apostolado de la pluma, a través de una revista religiosa con sede en su propia casa. Su condición de profesor en una orden religiosa es lo que mejor explica su estilo

de formación, el trabajo intelectual que llevó a cabo, los medios relativamente abundantes de que dispuso, y el sello que todo ello dejó en su condición de hombre culto.

Hay que resaltar también la apertura al exterior que le reportó el conocimiento de varias lenguas. Después de ser capellán de gudarís, y ya en la cárcel, aprendió el alemán, el inglés, el italiano, además de perfeccionar el francés. Valiéndose de su preparación en el campo de los idiomas, tradujo obras de interés para el momento, aquellas que reflejaban las luces y las inquietudes del pensamiento católico contemporáneo. Tradujo, por ejemplo, más de dos mil páginas del alemán al castellano, publicándolas luego en editoras de difusión. En los temas de actualidad resalta el instinto y el talento de Aita Lino para profundizar en materias bíblico-teológicas.

Respecto a los libros por él publicados, su obra cumbre es el *Diccionario de Autoridades del Euskera* (1977-1984). Sabemos que Aita Lino hizo “el trabajo manual y asumió la responsabilidad de toda la obra”, siendo “el autor de la misma”. Además de los nueve tomos de que consta el diccionario, preparó ediciones de autores antiguos del euskara, así como las traducciones al vascuence de libros clásicos universales. Y merecen una mención especial sus publicaciones en el campo litúrgico.

De entre los escritos breves que publicó en diversas revistas, subrayaríamos sus 287 artículos que figuran en sus Obras Completas. Todos estos trabajos nos atestiguan no sólo la magnitud de lo publicado, sino su instinto científico, su autenticidad y su talle de investigador.

Colaboró, también, en trabajos programados por las distintas instituciones culturales y religiosas. Fué nombrado en 1963 académico de número de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, renunciando al escaño. Años después, en 1978, le designaron presidente de Euskerazaintza, cargo que ostentó hasta su muerte. Y formó parte de la Comisión de Gramática de Euskaltzaindia. Pero tal vez la labor más importante la efectuó en la Comisión Interdiocesana de Liturgia: tomó parte muy activa en la versión vasca de los textos litúrgicos propuestos por el Concilio Vaticano II, siendo del todo estimable su aportación a los trabajos del grupo. Se responsabilizó de la edición vizcaína de los textos preparados en común para todo el País Vasco.

Vizcaya ha perdido a su “hijo preclaro”. Y el euskara llora a uno de sus grandes investigadores y a uno de sus humanistas destacados de finales de siglo.

Con palabras originales de Aita Lino, con este estribillo tantas veces repetido en los funerales de nuestros pueblos, le despedimos con el mejor de los recuerdos:

“Recíbele, Señor, en el cielo,
acógele en la mansión eterna”.